



Proiektu zahar
zein berri, 2020
urteko Udal
Aurrekontuan

ASTIGARRAGA
UDALA

2-3

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



Barrenetxeak Binakakoaren finala bilatuko du Galarretan

HERNANI
ERREMONTEA

13



Gabonetako kontzertua egongo da gaur parrokian

HERNANI
MUSIKA

4



Santo Tomaseko feria, txistorra eta ogia

Santo Tomas eguna da gaur eta aurreko astetik txistorrada ugari egon dira herri guztietan. Atzo Ereñotzun eta Zelabiden ospatu zuten eta asteburuan zehar Goiz Eguzkin, Plaza Berrin, Lizeagan eta Portu egongo dira postuak.

5

Barrikotea, afalorduko hitzordua

EREÑOTZU
UR-MIA

12

AGENDA

BIHAR : Umore Ona
14:30 : elkarteko
bazkaria
GOIZUETA

GAUR : 'Kikoriki'
16:30 : pelikula,
haurrentzat
HERNANI



BIHAR : 'Oreina' pelikula
18:00 : bihar eskainiko
da jangelan
GOIZUETA

CANEXION
Maskotentzako
kalitatezko denda
eta aholkularitza

**Albaitari-klinika
berria**

Akarregi poligonoa, 10. Hernani
943 04 87 83

facebook.com/Canexion

GABON HAUETAN
OPARITU EDERTASUNA
ETA ONGIZATEA

nibiru
UNISEX EDERGINTZA ZENTROA

SPA : Indiba
Tratamenduak : Tratamenduak
Mikro pigmentazioa : Manikura
Masajeak : Pedikura
Fotodepilazioa
Automakillaje
ikastaroa

IZPIZUA, 1 HERNANI
943 24 35 60
www.nibiruedergintza.com

BigMat

abenduaren 21etik urtarrilaren 31ra

**Manpara erosita
muntaketa doan**

Ibaiondo Poligonoa, 30 HERNANI
943 33 61 86
www.ariceta.bigmat.es

2019tik datozenak eta inbertsio berriak, 2020ko aurrekontuaren «puzzle joko haundi xamarrean»

Proiektu ugari aurreikusi ditu Astigarragako Udalak, 2020ko aurrekontuan; horietako batzuk, 2019an gauzatu ez direnak. «Garrantzitsua da 2020koa, baina inportantea izango da gerakina nola kudeatu eta berrantolatu ere, bidean zetozen proiektu batzuk ziurtatzeko eta beste batzuk martxan jartzeko», nabarmendu dute.

ASTIGARRAGA UDAL AURREKONTUA

Atzo onartu zuen Astigarragako Udalak, 2020rako Udal Aurrekontua, EH Bilduren aldeko botoekin eta PSE-EEren abstentzioarekin; EAJ-PNVk bozkatu zuen kontra. Eta horrenbestez, datoren urterako 9.291.408,11 euroko aurrekontua izango du Udalak.

2020ko aurrekontua bezain inportantea izango da, hala ere, aurretik datorren gerakina kudeatzea, Xabier Urdangarin alkateak eta Andoni Gartzia ogasun zinegotziak azaldu dutenez: «tokatu zaigu 2020ko aurrekontua prestatzea, baina baita ere 2019koa kudeatzea, eta horren gerakina. Badira inbertsio asko 2020an egin edo hasiko direnak, baina kasu askotan 2019koak dira. Eta horrek buruko min dexte ekarri dizkigu; zorionez, dirua egon bazegoelako. Baina hori ez da seinale ona. Izan ere, udaletxe batek bere aurrekontuetan diru bat jasotzen duenean, erabiltzeko da».

Horregatik, nabarmendu dute «puzzle joko haundi xamarra» egin behar izan dutela «dena koadratzeko»; ikusteko gerakina nola berrantolatu, «bidean zetozen proiektu batzuk ziurtatzeko eta beste batzuk martxan jartzeko». Azaldu dute, baita ere, proiektu askotarako aurreikusita zeuden kopuruan ez zeudela «ondo aurreikusita», eta gerakinetik hartu behar izan dutela: «adibidez, Arroitxuloko igogailuarentzat, 600.000 euro zeuden gordeta, eta milioi bat eurotik pasako da. Beste horrenbeste kultur etxe berriarekin; BEZA ordaintzea Udalarri dagokio,

1.100.000 euro inguru, eta hori ez zegoen aurrekontuan zehatz-mehatz jasota. Eta berdin kultur etxerako ekipamenduen kasuan, edo Emakumeon Plazaren proiektuan; aurreikusitakoa ez zen nahikoa», diote.

Gerakina, pendiente dauden proiektuak martxan jartzeko

Astigarragako Udalak aurreikusi du, beraz, 2020an erabiltzea, 2017, 2018 eta 2019 urteetako gerakina: «aurreikusitako gauza asko ez ziren egin, eta exekuzio maila oso txikia izan zen». Hori horrela, oraindik kopuru zehatza ez dakiten arren, milioi bat eta bi milioi euro arteko gerakina daukatela kalkulatu dute: «proiektu asko daude gauzatzeko, eta gerakina izango da pendiente dauden proiektu horiek guztiak martxan jartzeko».

Horien artean daude, noski, hezkuntzako hiru proiektuak: «Haur Eskola berrian, asmoa da obrak lizitatzea aurreneko sei hilekoan; DBHko urbanizazio lanak, 2020an jarri nahi ditugu martxan; eta Herri Eskola haunditzeko proiektua ere, 2020an idazteko asmoa daukagu», dio Andoni Gartzia. 2020arekin batera hasiko dituzte kultur etxe berria hornitzeko lanak ere, behin eskrituratuta. «Milioi eta erdi inguru izango da hornikuntza. 850.000 euro inguru 2019ko aurrekontuan dauzkagu gordeta, ikusentzunezkoen materialerako; eta gainerakoa, izango dira altzariak, eta sarrerako eta teknologiko kontuak, 2020rako aurrekontutik eta gerakinetik finantzatzeko ditugunak».

Gerakina zenbatekoa zein



Anuska auzoa berritzeko lanen azkeneko faseak gauzatu nahi dituzte, legealdi honetan.

«Txomiñene frontoiari buelta bat eman nahi diogu legealdi honetan. 132.000 euro aurreikusi ditugu 2020rako, behar nagusiak asetzeko: teilatuko ur arazoak, harmailtako arazoak...»

den arabera, uholdeen kontra inbertsio bat aurreikusi da: «egin behar den lanetako bat da, Goiko Iturriko urak beste nonbaitetik bideratu, Kutxa ingurua ez inundatzeko. Baina milioi bat euroko obra izan daiteke. 2020an ez daukagu dirurik horretarako, baina 2019tik gastatuko ez denarekin, uste dugu horri heldu ahal izango diogula».

Kirol arloan, frontoia, bizikleta pista eta kiroldegiko lanak

Txomiñene frontoiari ere, «buelta bat» eman nahi dio Udala Gobernuak, legealdi honetan: «eta horretarako, 132.000 euro aurreikusi ditugu aurrekontuan. Hori izango da behar nagusiak asetzeko. Teilatuan dauden ur arazoak, harmailtako arazoak... Hezetan arazo ikaragarriak daukate. Menditik datorren ura ez da ondo jasotzen, eta beraz, frontoiaren atzeko aldean dagoen pareta oso kastigatuta dago. Pareta hori pilotatu-

ta dago, zutoin batzuk dauzka sartuta mendiari eusteko; eta oraintxe ari gara hori aztertzen, ez dadin izan konpontzen hasi eta mendia gainera etorriko zaigula. Horren diagnostikoa zein den arabera, diru gehiago inbertitu beharko dugu pareta ondo jartzen, edo ondo egonez gero, frontoia zein aldagelak berritu ahal izango ditugu», azaldu du Xabier Urdangarinek.

Bizikletan ibiltzeko pista edo pump truck delakoa izango da beste nobedade bat: «2018ko aurrekontu partehartzaileetan aukeratu zen, eta Arroitxulo eta etxe berrien artean egingo da; baina itxaron behar dugu obrak bukatu arte. Iraila aldera izango da hori».

Kirol arloan inbertsio gehiago ere egingo dituzte 2020an; esaterako, 20.000 euro jaso dituzte kiroldegiko bizikletak berritzeko, eta beste 50.000 euro, igerileku txikia haunditzeko: «orain aforoa gainezka dago, eta haurrek ilara egin

behar dute piszina txikian sartu ahal izateko. Aztertzen ari gara nola haunditu dezakegun, bikoiztea posible bada hala egiteko. Helburua izango litzateke, ekainerako prest egotea igerilekua», diote.

Baina asmo potoloagoak ere badituzte legealdi honetarako: kiroldegia haunditzeko asmoa daukagu. Horretarako, dagoeneko alokatu dugu lokal bat brigadarentzat, kiroldegitik bertara trasladatzeko, sei hilabeteko epean edo. Beraz, kiroldegiko espazio hori hutsa geratuko da. Ziur aski, Herri Eskolaren haunditzearekin, lokalen bat konpartitu beharko du kiroldegia momenturen batean; baina epe ertain-luzera, hiru-lau urteko epean, hori erabat kiroldegia-arentzat geratuko da. Metro asko dira, eta proiektu bat egin beharko dugu, finkatzeko zein zerbitzu eskaini behar dituen kiroldegia. Eta horrekin batera, aztertu nahi dute igerilekua estaltzearen bideragarritasuna: «teknikoki ziurrenik bai, baina ikusi behar da zenbat kostako litzaikeen Astigarragari, igerilekua mantentzea. Errepikatzen den eskaera bat da, eta behintzat nahi dugu ikerketa sakon bat izan, eztabaida herrita-

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
Arcos, A. Moreno, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, L.
Rekondo eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Ereñotzuko
Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

TOKIKOM

Bikain



DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

«Anuska auzoa da, Emakumeon Plazarekin batera, herriko gune zaharkituena. Gure asmoa da legealdi honetan bukatzea berritzeko lanak»

rrengana zabaldu eta erabakia beraiekin batera hartzeko», dio alkateak.

Anuska eta Perurena auzoak, eta herribideak

Auzoei dagokienez, Anuska auzoan daukate erronka potolo bat: «aurreneko eta bigarren faseko lanak egin genituen gure legealdian, eta orain irisgarritasun lanak ere jarri dira martxan; baina faltako litzateke erdiko kalearen eta atzeko kalearen urbanizazioa. Emakumeon Plazarekin batera, herriko gune zaharkituena da, eta 25.000 euroko partida bat dago proiektu definitiboa idazteko. Gure asmoa da legealdi honetan bukatzea lanak», dio Gartzia.

Perurena auzoan ere egingo dituzte lanak, 2020an: «aspaldiko eskaera da ludoteka zerbitzua eskaintzea bertan. Frontoian badago lokal txiki bat, inolako obrarik egin gabe, instalazio minimoekin; eta gure asmoa da hori berritzea. Gerakinean badaude 58.000 euro horretarako gordeta, eta 12.000 euro gehitu dizkiogu, aurrera eramateko. Proiektua idazten ari gara, eta gure asmoa da, gutxienez hurrengo urteko aurrekontuen bileran erronda egiteko, lokal berriaren egotea. Frustrazio handia dago auzoan, urteak daramazkitelako eskatzen eta ezkatzen, eta ezer gutxi egin delako», dio Gartzia. Horrekin batera, frontoiko argiak ere berrituko dituzte, 80ko hamarkadakoak direlako, eta kontsumoa ere handia dutelako.

Auzoetako eskaerekin lotura zuzena dauka, herri bideak konpontzeko partidak ere: «astindu bat eman nahi diegu aurten, eta proiektu bat egin nahi dugu, ikusteko zein behar dagoen herri bide bakoitzean. 150.000 euro daude herri bideak berritu eta hobetzeko, eta gure asmoa da, Santiomendira igotzeko bidean, leuntzeko falta diren bi kurbak leuntzea. 2020an ez bada, legealdi honetan behintzat ziur egingo dugu». Konponketak egingo dituzte sagardotegi zeharrran ere, Etxeberria eta Ermañara doan bidean, ur bideekin arazoak baitaude. Baina beste herri hainbat bidetan ere behar dira konponketak: «auzoetako eskaerek, askotan, bideekin

dute zerikusia. Auzotarrek hitz egitea oso aberasgarria da, beraiek ezagutzen dutelako ondoen zein behar dituzten bideak. Baina bereziki, eskatzen dutena da egitea. Ondo dago joatea eta bilerak egitea, baina bitan edo hirutan eskatu eta ezer ez egitea... Alperrikako bilerak ez zazkio inori gustatzen».

Santiomendin bertan, espero dute udara baino lehen bideratzea kaxkoaren urbanizazio lanak: «pixka bat atzeratu da proiektua, auzotarrek eskatu zutelako airetik doan telefonia kableatua lurperatzea, eta zentuzkoa da. Kable pila bat dijoaz airetik», azaldu du alkateak.

Bidebarte proiektua, eta plan orokorraren berrikuspina

Beste bi proiektu potolo ere jarri nahi ditu martxan Udalak, datorren urtean. Batetik, Bidebarte poligonoan lanketa egingo dute, bertako urbanizazioaren berrikuntza osoa egiteko: «epe luzera jarri nahi dugu ikuspegia. Izan ere, zaharkitua dago, kamioiek bertan aparkatzen dute... Gainera, aldiriko trenaren geltokia poligonoaren bestaldean joango da. Eta bertara joateko, bidea egin behar da, hemendik edo handik. Bidebarten bertan izan dezake pasabide bat, eta hori horrela izango bada, presatu beharko dugu segurtasun sententzia emateko. Orain poligono bat da soilik, asteburuetan ez dabil inor, iluna, hezea...».

Beste proiektua da, Plan Orokorren berrikuspina: «legealdiko egitasmo bat da, eta hiru urtetan 363.000 euro aurreikusituz; 2020an, 90.000. Lizitazioa martxan da, eta kontratua sinatzean, lau urteko prozesua hasiko dugu, hirigintza plan orokor osoa berrikusteko. Herriarentzat estrategikoa da».

Bi urtetako kopurua, 2020ko aurrekontu partehartzaileetan
Dirulaguntzei dagokienez, alokairurako laguntzak handitu dira, 40.000 eurora; eta ekimen bat jarri nahi dute martxan, hori sustatzeko. Eta Mutuaitz Fest antolatzen jarraitzeko, hitzarmen bidez bideratuko dute laguntza aurrerantzean, urtean 30.000 euroko kopuruz. Gainerakoan, mantendu egin dira herriko elkarteentzako dirulaguntzak. Dirulaguntzeekin lotuta, hobari sistema bat ere jarri dute martxan, familiantzako: tasak ordaintzeko orduan, familiako kideen arabera gutxiago ordainduko dute, %90etik %20ra bitarteko hobariekin.

Mapa Morearen egitasmoari ere segida emango diote, 60.000 euroekin. Eta kultur arloan, herriko buruhandiak berrituko dituzte: «emakumezko figura bakarra dago, eta neskamea da



Buruhandiak berritzeko partida bat ere jaso dute: emakume figura gehiago sortu nahi dituzte, neskamea baita bakarra.

gainera. Beraz, berdintasun lan horretan, emakumezko pertsonaia batzuk sortu nahi ditugu, konnotazio positiboa dutenak», jakinarazi dute.

Bestalde, 2019an ez denez burutu aurrekontu partehartzaileen prozesua, 2020an bi urteetako kopurua jarriko dute, guztira 210.000 euro, herritarrek erabakitzeke zer egin. Otsailean hasita, aurreneko sei hilabetean gauzatuko da.

Eta azkenik, pertsonal gastuetan, bi teknikariren lanpostuak pasako dituzte lanaldi erditik osora: enplegu teknikariarena eta berdintasun teknikariarena, bi sailak indartzeko.

EAJ-PNV: «herriarentzat estrategikoa diren proiektuak ahaztu ditu EH Bilduk»

Aurrekontuen kontra bozkatu zuen EAJ-PNVk atzo, «proposamen berririk gabeko aurrekontuak» direla nabarmenduz: «eta gainera, herriarentzat estrategikoa diren proiektuak ahaztu ditu EH Bilduk». Horien artean aipatu du, Uholdeen Aurkako Plana martxan jartzea: «ehun urtez Astigarraga uholdeetatik babesteko plana aurkeztu genuen, eta EH Bilduk ez du zentimorik bideratu arazo larri honi aurre egiteko». Adierazi du, bestalde: «gure alegazioetatik interesgarriak iruditu zitzaizkien hartu, eta beraiekin balira bezala aurkeztu dituzte, alegazioetarako epea amaitu ondoren». Horren adibide gisa aipatu du DBHren proiektua: «gure alegazioari esker, hezkuntzarako diru-partida bideratu da azkenean, nahiz eta beraiekin aurreneko zirriborroan aurreikusita ez egon».

Eta gaineratu du: «zoritzarrez ahaztuko den beste proiektu bat Santiomendi-Landarbaso Paisairako Plana da. Eusko Jaurlaritzak begi onez ikusten zuen, sariak irabazi zituen, eta paisaian adituak diren profesional askoren atentzioa deitu zuen. Baina EH Bilduk, beldurrez, ka-

joian sartu du egindako lan bikaina. Ez du nahi Astigarragako aurrera egitea, betikoarekin konformatzen da, kontrolatzeko gai denarekin. Begirada motza izaten jarraitzen dute».

EAJk adierazi du, dena den, «zorionez jarraipena» emango diela EH Bilduk, guk hasitako proiektuei: «Arrobitxuloko igogailua, Herri Eskola haunditzea, Emakumeon Plaza berritzea, tren geltokia... Proiektu guzti horiek EAJk bideratuta utzi zituen ekonomikoki. EH Bildu oso lasai biziko da EAJk egindako lanaz baliatuz; jaso dutenarekin, ez daukate ideia berririk lantzeko inolako presarik. Bideratu dituzte 90.000 euro Plan

Orokorra berritzeko, eta 80.000 hondakin bilketaren inguruko azterketa bat egiteko. Beste batzuek egingo dute lan, legealdi honetan».

PSE-EE: «borondate oneko keinu bat egin dugu»

Astigarragako PSE-EE, bere alde-tik, abstenitu egin zen: «legealdi berriko aurreneko aurrekontuak dira, eta borondate oneko keinu bezala, erabaki dugu emendakinik ez aurkeztea eta abstenitzea. Uste dugu aurrekontuak onak direla, proiektu politiko berri baten hasiera suposatuz dezaketena; eta balorazioa eginda, erabaki dugu bere horretan uztea». **K**

2020ko UDAL AURREKONTUA

SARRERAK	9.291.408,11 euro
Zuzeneko zergak	2.279.404,35 euro
Zeharkako zergak	340.000 euro
Tasak eta bestelako zergak	1.271.357,91 euro
Transferentzia arruntak	4.883.769 euro
Ondare sarrerak	69.476,88 euro
Inbertsio errealak besterentzeagatik eta hirigintza jardueretatik ondorioztatutakoak	282.000 euro
Kapital transferentziak	160.399,97 euro
Finantza aktiboak	5.000 euro
GASTUAK	9.291.408,11 euro
Pertsonal gastuak	2.330.131,15 euro
Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	4.468.593,97 euro
Transferentzia arruntak	1.259.066,68 euro
Inbertsio errealak	1.040.649,20 euro
Kapital transferentziak	187.558 euro
Finantza aktiboak	5.409,11 euro
INBERTSIO NAGUSIAK	
Arrobitxuloko irisgarritasuna	337.726,20 euro
Txomiñene frontoia	132.000 euro
Herritarren partehartzea	110.000 euro
Hiri Antol. Plan Orokorren berrikuspina	90.000 euro
Mapa Morea	60.000 euro
Kiroldegia	50.000 euro
Perurenako frontoien argiak	40.000 euro
Ur kontadoreak berritzea	35.000 euro
DBHren proiektua	25.000 euro
Herri Eskolaren haunditzea	25.000 euro
Anuska auzoko lanak	25.000 euro
Kirol tresnak	20.000 euro

2020ko Udal Aurrekontua onartuta, kontrakorik gabe

EH Bilduren botoekin onartu zen Plenoan, eta abstenitu egin ziren EAJ-PNV, Orain Hernani eta PSE-EE. Egindako bileretako «elkar ulertze ona» nabarmendu zuten.

UDALA PLENOA

Ostegunean egin zuen Hernaniko Udalak, ezohiko deialdian, urteko azkeneko Plenoa. Eta bertan onartu zuten 2020ko Udal Aurrekontua; kontrako botorik ez zen izan, gainera: abstenitu egin ziren oposizioko hiru alderdiak, EAJ-PNV, Orain Hernani eta PSE-EE; eta EH Bilduren aldeko botoekin onartu ziren.

Guztiak nabarmendu zuten, egindako bileretan izan den «elkar ulertze ona». Xabier Lertxundi alkateak adierazi zuen, «modu positiboan» baloratu dituztela alderdiekin bilerak: «oso nabarmenezkoa da EAJren jarraera aldatzea eta elkarlanerako borondatea. Positiboak izan dira bilerak Orain Hernani eta PSE-EEekin ere, eta horien emaitza ikusi daiteke aurrekontuan. Oso emaitza ona da, alderdi guztien ekarpenak jasotzen dituelako; eta espero dugu legealdian zehar hala izaten jarraitzea eta elkarlanean aritzea».

Isa Sanchez ogasun zinegotziak azaldu zituen 29.549.159 euroko aurrekontuaren hainbat xehetasun: «iazkoaren aldean aurrekontua txikitu arren, herritarrentzako zerbitzuak mantenduko dira, eta ongintzaren aurrekontua %13 haunditu dugu, bereziki langileen baldintzak hobetzeko. Udalak ez du mailegurik eskatu beharko, beste behin». Eta era berean, aipatu zituen onartu diren oposizioko alderdien proposamenak. EAJ-



Aurrekontuen bileretan izandako «sintonia ona» nabarmendu zuen oposizioak.

-PNVren bost emendakin txertatu dira, Orain Hernaniren lau, eta PSE-EEren hiru.

EAJko Jose Antonio Cuestak azaldu zuen, pozik daudela txertatu diren gaiekin, udaletxeko funtzionamenduari eta zerbitzuei dagokienez, «nahiz eta nahiko genukeen atez atekoari buruzko eztabaida sartzea».

Orain Hernaniko Jaione Aristregik berretsi zuen «bilera positiboak» izan direla, baina gehiago espero genuen; kontinuitate iruditu zaigu aurrekontua, beharbada legealdiko aurrenekoak direlako da. Onartutako proposamenak exkaxak iruditzen zaizkigu, baina konfiantza boto bat eman nahi diegu».

PSE-EEko Ricardo Crespok azaldu zuen, badaudela zenbait gai «inoiz ados egongo ez garenak», baina emendakin partzialak ere aurkeztu zituztela: «emendakin horiek negoziatu genituen, eta sintonia ona egon zen bileretan. Abstenitzea erabaki dugu, gai batzuetan izan den elkar ulertze onagatik».

Zikuñaga papelerari baimena onartuta, haunditzeko

Gainerako gaien artean, onartu egin zuten baimena ematea Zikuñaga papelerari, haunditu eta beste eraikin bat jartzeko, behin URA agentziaren zein Ingurumen Sailaren txostenak jasota; «baina baldintza eta bete-

behar batzuekin», Mattin Aldaia zinegotziak azaldu zuenez. Alde bozkatu zuten denek, Orain Hernanik izan ezik; abstenitu egin zen: «ez zaizkigu gustatzen papeleraren ke eta usainak, baina abstenituko gara, txostenak alde dituelako eta 50 lanpostu berri sortuko dituelako. Baina hasieratik kontrolatu beharko da, baldintzak zorrotz betetzen direla», azaldu zuen Aristregik.

Aldiz, aho batez onartu ziren eskola kiroleko ereduaren berrespena, Udal Euskaltegiko zuzendari aldatzea, hitzarmena sinatzea Beterri Errotuz laneratze enpresa kontratatze, eta Dirulaguntzen 2020-2022 Plan Estrategikoaren onarpena.

Eta onartu zen baita ere, EH Bilduren botoekin, Hernaniko Udaleko, Ereñotzuko Auzo Udaleko eta Ongintzako Plantilla Organikoaren eta Lanpostuen zerrenda. «Orain dela zortzi bat urte hasi zen lanpostuen balorazioa, aurrekoa 1989koa baitzen. Azken emaitza ez da guk nahiko genukeena, Espainiako legediak asko mugatu baitu; baina oso lan aberatsa izan da, langileek sekulako lana egin dute», adierazi zuen alkateak. Abstenitu egin zen oposizioa: «ez gaude kontra, poztan gara behingoz egin delako balorazioa. Baina uste dugu lanpostu batzuek balorazio sakonagoa behar luketela», azaldu zuen Crespok. **K**

Musika Banda, Ozenki eta Umore Ona, elizan

Gabonetako kontzertua eskainiko dute, 20:00etan hasita, eta Helena Orcoyen eta Jon Imanol Etxabe ere ariko dira bertan.

GABONAK KONZERTUA

Gabonak gertu diren honetan, San Joan Bataiatzailearen parrokiara eramango dituzte beraien doinu eta ahotsak, Uru-mea bailarako hiru taldek: elkarrekin ariko dira Hernaniko Musika Banda, eta Ereñotzuko Ozenki eta Goizuetako Umore Ona abesbatzak, gaur.

Arratsaldeko 20:00etan hasiko da Gabonetako kontzertu berezia, eta oraingo honetan, obra gehienetan elkarrekin ariko dira hiru taldeak. Gainera, kolaboratzaile gehiago ere izango dituzte emanaldian, izen haun-

diko hainbat lagun gonbidatu baititu Musika Bandak, gaurkoan. Batetik, Helena Orcoyen sopranoa egongo da bertan, nazioartean oso ezaguna: «prestigio handiko emakumea da, eta ohore bat izango da bera gure artean egotea eta bere ahotsaz disfrutatze aukera izatea», nabarmendu dute. Eta bestetik, bakarlari gisa arituko da Jon Imanol Etxabe, abestietako batean. Doinu Zaleko akordeoi orkestraren laguntza ere izango dute abesbatzako, obra batean.

Hori horrela, aurreratu dute «mota askotariko taldeak eta abestiak» entzuteko aukera izango dela kontzertuan: «ganbera musika, haizezko instrumentazioa perkusioaren laguntzaz, akordeoi orkestra, bakarlari lanetan ariko den sopranoa... Guzti horietaz eta musikaz Gabonetako giroan disfrutatze, aukera paregabea». **K**

'Kikoriki' filma gaur, oporraldia hasteko

Neguko oporraldirako egitarauan, aurreneko ekintza izango da haurrentzako pelikula. Biterin jarriko dute, gaur eta bihar, 16:30etan hasita.

UDALA NEGUKO EGITARAUA

Egitarau berezia prestatu du Hernaniko Udalak, aurtan ere, neguko oporraldiaz gozatu dezaten herritarrek; eta bereziki, haur eta gaztetxoek.

Horri hasiera emateko, zinea izango da gaur eta bihar, hurrei zuzenduta. *Kikoriki* pelikula jarriko dute, bi egunetan arratsaldeko 16:30etan, Biterin.

Uharte baketsua da Kikoriki, baina abentura handi batean murgilduko dira bertako bizilagunak. Izan ere, uharteko zientzialari batek gailu harrigarri bat asmatu du: pertsona baten nortasun ezaugarriak hartu, eta beste pertsona batenekin aldatzen ditu.

Eta astelehenean, aukera biokitza izango dute. Batetik, ludoteka jarriko dute kiroldegian, 10:00etatik 13:00etara. Eta bestetik, Biterin, Argigrama tailerra eskainiko du Nagore Legarreta artista hernaniarrak, bi txandatan: 16:00etatik 18:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara. Hori bai, horretarako aurrez eman behar da izena. 6 urtetik gorakoentzat da; 10 urtetik beherakoek, heldu batekin joan behar dute. **K**

FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...



Zentrala · Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA



Zelabiden atzo ospatu zen aurrenekoz Santo Tomas.

Santo Tomasek ez du etenik Hernanin

Gaur eta bihar herriko txoko desberdinetan postuak jarriko dira: Goiz Eguzkin, Plaza Berrin, Floridan, Portun eta Lizeagan.

HERNANI SANTO TOMAS

Santo Tomas feriak Hernanin ez du etenik. Aurreko larunbatean hasi ziren ospatzen eta jarraipena izango du bihar arte. Hala ere, Santo Tomas eguna gaur da eta aukera zabala egongo da txistorra jateko.

Gaur Goiz Eguzkin, Floridan eta Plaza Berrin CD Hernanin Urteroko zita jarri du Goiz Eguzki jubilatuen elkarteak 11:00etan hasita, gonbidatuei harrera egin eta banatuko dituzte udazkeneko karta eta herri jolas txapelketetako sariak. Ondoren, Gabonetako lau saski zozketatuko dituzte; eta azkenik, txistorrada izango da.

Hernaniko gaztetxoek ere, Gaztelekuan txistorrada egingo dute. Eta Donostian jarriko du postua San Joan Konpartsak, Gi-

puzkoa plazan.

CD Hernaniko futbol sekzioak Plaza Berrin jarriko du postua. 10:00etatik aurrera egun guztian zehar egongo dira 20:00ak arte eta bertan jokalariek, entrenatzaile, kolaboratzaile eta gurasoak izango dira. Janari eta edariak gain, sorpresa gehiago izango da.

Floridan ere, Auzokidek Santo Tomas eguna ospatuko du, 10:00etatik hasita, tabernaren eta elkartearen lokalaren ondoan.

Portun eta Lizeagan bihar

Eta Santo Tomaseko ospakizunekin bukatzeko, bihar jarri du hitzordua Gibelalde, Lizeagako auzo elkarteak. Eguerdiko 12:30etan jarriko dute postua, Urumea ikastolan; eta saski bat zozketatuko dute 13:00etan, elkartearen bazkideen artean.

Bihar egingo dute txistorrada Portu auzoan ere, 12:00etan Ibarrolaburu plazan; eta bertan ere zozketatuko dute saskia.

Atzo, Zelabide auzo elkarteak, aurrenekoz, Santo Tomaseko txistorrada ere antolatu zuen. Gabriel Zelaia plazan giro ezin hobean. **K**

Anduezak aktualitate politikoa aztertuko du

Gipuzkoako sozialisten Idazkari Nagusia Hernanin egongo da, bihar 12:00etan, Hernaniko egoitzan Cresporekin batera.

HERNANI PSE-EE

Eneko Andueza, PSE-EEko Gipuzkoako Idazkari Nagusia, Hernanira etorriko da bihar Euskadiko aktualitate politikoa jarduteko. Hernaniko bozeramaile den Ricardo Cresporekin batera ak-

tualitatearen nondik norakoak aztertuko dituzte PSE-EEk Hernanin duen egoitzan.

Laiztiaga auzoan, zortzigarren zenbakian dago egoitza Florida aldean eta 12:00etan hasiko da ekitaldia.

Politikako berri asko egon da aste hauetan. Euskadikoan aurrekontuen inguruko akordio eta ez akordioak, estatus politikoaren gaia, De Miguel auzia... eta Espainia mailan alderdi sozialistak inbestidura lortzeko egiten ari diren negoziaketa eta mugimenduak, alderdi desberdinen artean. **K**

'Zein entitate nahi duzu Euskaraldian?', aukeratu daiteke

HERNANI EUSKERA

2020an Euskaraldia jarriko da martxan eta Euskara Ari Duk partehartze prozesu bat jarri du abian Hernanin. Euskaraldian norbanakoei ez ezik entitateei (enpresei, kultur elkartei, kirol taldeei...) ere partehartzeko

gonbidapena egingo zaie, euren eremuetan hizkuntza ohiturak aldatzeko eta entitateko kideen partehartzea sustatu eta babes dezaten.

Hernanin ariketa kolektibo honetan zein entitatek esku hartu beharko luketen jakiteko inkesta edo partehartze prozesu

bat jarri du martxan Euskaraldiak. Bertan herritarrek gomendatu dezakete zein entitate edo elkartetan jarriko luketen abian gonbidapena.

Horrela, www.labur.eus/euskara20 web gunean eman dezakete erantzuna urtarrilaren 12a baino lehen. **K**



EROTIKAN PLAX

Izena: Iker Izagirre Ayerregaray
Jaiotza: 1994-08-22
Bizitokia: Hernani, Gartzia Goldaraz
Lanbidea: Informatikaria, zibersegurtasun industrialean

«Entxufatu, konektatu eta elkar birprogramatu»

Zure bilakaera erotikoaren istoriala aztertuko bazenu, zer ikusiko litzateke bertan?
Hasieran internet *Explorer* nintzela (ez nituen seinaleak ulertzen) eta *Chrome* bilakatzeko noala.

Zein pista eman dezake norbaiten ordenagailuak?
Nahasmena gustatzen zaion edo ez.

Ordenagailuek kodeekin funtzionatzen dute, harremanetan ere kode propioak sortzen ditugu?
Bai eta iprogramazio munduan lengoia asko dauden bezala, komeni da lengoia berean hitz egitea.

Noiz egin daiteke "Crt C" - "Crt V" maindire arteko jolasean?
Zure istorialeko fabaritoan gordeko zenuen zerbait pasatzen denean.

Eta noiz reiniziatu?
Biek gozatzen ez duzuenean.

Nola liberatu gure software erotikoak ezarritako softwaretik?
Jendeak aktualizazio interesgarriak ekartzen ditu, entxufatu, konektatu eta elkar birprogramatuz.

Harreman baten bilakaera programatu al daiteke?
Hori ez du ezta *Machine learning*-ak berrikusten.

Aplikazio pila harremanak hasteko, gero aplikatzen al gara hauek zaintzen?
Nire bikotea horrela ezagutu nuen eta asko zaintzen dugu elkar.

Pianoan, eskalatzen, teklatuan... eskuekin gaitasunak garatzea gustatzen zaizu?
Behatzak gauza askotarako erabili ditzaket, bai.

PLAZERREN PUTZUA
Muxu, laztan eta koxk, bakoitza non?
Nik toki guztietan. Niri ere bai, lepoan izan ezik, kilima gehiegi.

Jostailu bezala erabiltzeko baliabide teknologikorik?
Gaur egun edozein gailu kontrola daiteke urrutitik.

Elkartzeak programatu ala gertatzen utzi?
Programatu daitezke, baina ikusi ez duzun kode batek beste zerbait sor dezake.

Gaur neguko solstizioa, go-

PLAX! Hernaniko udaleko sexu eta bikote aholkularitza da. Aurrez-aurreko doako arreta zerbitzua ematen dugu. Sandiusterreri 1 zenbakian dugu bulegoa. Hitzordua egiteko: **656 544 606** (deitu edo bidali whatsapp bat), www.hernani.eus/sexu eta [facebook.com/plaxhernani](https://www.facebook.com/plaxhernani)

Sexismoa ez oparitzeko GIDA

Jostailu, jolas edo ipuinak aukeratzeko garaian kontuan hartu behar dira haurren nahiak eta gustuak, sexuak aukeraketa horretan eraginik izan gabe.

Informazio gehiago / gida eskuragarri:
www.hernani.eus/eu/berdintasuna

mendatzeko sutondo planik?
Mahai jokoetan beti gerturatzeko dira harremanak.

Lantegiko bihurrikerietarako txoko bat?
Kamarak grabatzen ez duen sukaldea.

Non klikatu daiteke zuri oilo ipurdia jartzeko?
Izkutuko fitxategia da hori, baimen berezia behar da

SEX-ALDIA BUKATU...
Bateria kargatuz gero..?
Jolasteko energia prest.

Pantailak itzaltzean...?
Argi gabe ere sentitu daiteke.

SASIGALDERA
Zer esango zenioke bikote harremana eguneratu nahi eta ezinean dabilenari?
Informazioa bilatzeko datu base onak deudela herrian, adibidez, Plax! Sexu eta Bikote Aholkularitza zerbitzura joateko aukera duela.



Xaguxarrek antolatutako Negulekuak etzi hasiko dira

Urtarrilaren 3ra arte iraungo du eta asteartean Olentzero eta Mari Domingi jaitsiko dira.

ASTIGARRAGA GABONAK

Xaguxarren Negulekua hemen da jadanik urteroko hitzorduari helduz. Etzi astelehenean, abenduaren 23an, hasiko da eta urtarrilaren 3ra arte iraungo du. Gabonak ate joka dira, eta gazteenek hartu dituzte oporrak. Negulekua irekita egongo da abenduaren 23, 26, 27, 30, 31, eta urtarrilaren 2 eta 3an, hainbat ekintza egiteko.

4 eta 12 urteko umeak hartuko dute parte eta astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara egongo da martxan. Herri Eskolan egingo da eta 08:30etatik 10:00etara zaintza-zerbitzua eskainiko da.

Asteartean, 11:30etan, Santiagomenditik behera Olentzero eta Mari Domingi Xaguxar elkarteak Olentzero eta Mari Domingiren etorrera ere antolatzen du Gabonetan. Asteartean, abenduaren 24an, jeitsiko dira Santiagomenditik eta



Jostailuen trukea pasa den astean egin zen Herri Eskolan.

ikastolako atarian herriko haurrekin elkartuta kaleetan zehar ibiliko dira, 11:30etatik aurrera. Bukaeran udaletxeko balkoitik haurrekin batera abestu eta agurtu egingo dituzte.

Jostailuen truke azoka eraman zen aurrera Xaguxarrek abenduan ekitaldi ugari antolatzen ditu eta urteroko egiten duen moduan, Xaguxar elkarteak jostailuen truke

azoka ere antolatu du aurten. Abenduaren 11n Eskolako atarian egon zen postua eta bertan, etxean aspaldian erabili gabe egon ziren jostailuak, eta egoera onean daudenak, utzi ahal izan ziren eta trukean, opari txartelak jaso ziren.

Utzitako jostailuekin jasotako truke-txartela, berriz, ostiralean, hilaren 13an erabili zituzten, jostailuak hartzeko, nahiz eta eguraldi petrala izan. **K**

Presoen aldeko ekitaldiak, Gabonetan

Asteartean Olentzero aterako da, ostiralean kontzentrazioa eta gaur zortzi manifestazioa Donostian egingo dira.

ASTIGARRAGA PRESOK

Urteroko moduan, aurten ere, abenduaren 24an, asteartean, euskal preso eta iheslarien aldeko Olentzeroa aterako da Astigarragan barrena 16:00ak aldera, Oialumen elkartu eta herriko kaleetan ibili ondoren, Joseba Barandiaran plazan emango zaio amaiera. 19:00etan 564

abestia abestuko da preso eta iheslarien alde.

Ostiralean, abenduaren 27an berriz, hilabeteko azken ostirala dela eta, arratsaldeko 20:00etan kontzentrazioa burutuko da Joseba Barandiaran plazan eta amaieran mariskadaren zozketa egingo da.

Hirugarrenik, gaur zortzi, abenduaren 28an Sarek Donostian deitu duen manifestazioa joateko deia luzatzen da, 12:00etan Bule-barretik *Atera bidera Presoak etxera!* lemapean. Urtarrilaren 11n Bilbon deiturik dagoen «manifestazio Nazionala» joateko, autobus zerrendak, Zipotza tabernan daude. **K**



Poteoan atera ziren orain 30 urteko moda jarraituz.

'Gabon Apartsuen' barruan ere atrakzioak jarriko dira umeentzako

Joseba Barandiaranen, Kale Nagusian eta Kontxa Etxeberrian jarriko dira ostiralean eta gaur zortzi.

ASTIGARRAGA ASTIKO

Gabon Apartsuak, komertzio txikian egitasmoak, astebete bete ditu, baina oraindik beste hamar egun ditu aurretik. Gainera Gabonetan, bi egunez, umeentzako ohe elastikoak eta puzgarriak jarriko dira abenduaren 27an eta 28an.

Sagardo aparduna balorean jarri nahi da eta abenduaren 31ra arte herriko komertzio txikian egiten diren erosketak sarritzen ari dira. Zozketa-txartelak ari dira banatzen ekimenera atxikitu diren herriko 25 establezimenduetan.

Sarien artean, sagar barietate eta errima denbora ezberdi-

netako apardun zein bestelako gutzietekin osaturiko 30 saski, apardun erosteko 1.000 deskontu-bonu eta sagardotegietara bisita gidatuak zozketatuko dira. Saskiak ez diren sariak jasotzeko irabazleek sagardotegietara deitu beharko dute (Astarbe 943 55 15 27 zenbakira eta Petritegi 943 45 71 88 zenbakira).

25 establezimendu eta sei taberna

Guztira, Astigarragan, 25 establezimendu ari dira parte hartzen. 19 lokaletan eskuragarri egongo dira zozketa-txartelak eta sei tabernetan herritarrek apardun kopa bat eskatzeko aukera izango dute.

Horretaz gain, abenduaren 27 eta 28an, eta iazko esperientziari jarraipena emanez, txikientzat atrakzioak jarriko ditu Astikok. Aurten hiru gunetara zabaldu da ekimena: Joseba Barandiaran plaza, Kale Nagusia eta Kontxa Etxeberria plaza.

Jokoetan parte hartzeko txartelak doan banatuko dira asteazkenean arte

Jolasak Joseba Barandiaran, Norberto Almandoz eta Kontxa Etxeberria plazetan 11:00etatik 13:30etara, eta 17:00etatik 20:30etara jarriko dira. Ohe elastiko eta puzgarriak jarriko dira herriko hiru plazetan. Horietan doan ibiltzeko txartelak asteazkenean arte, abenduaren 24ra arte, emango dira establezimenduetan erostearen truke, baina bertan salgai ere egongo dira. **K**

80. hamarkadara egin zuten salto

ASTIGARRAGA UPELIO EGUNA 80ko hamarkadan egon zen giro-tuta aurten Gazte Asanbladak antolatutako Upelio Eguna. Larunbatean orain dela 30 urteko

jantziekin, poteoa, Kitadelpare txarangarekin batera, poteoa egin eta gero Zipotzan egin zen afaria eta eguna borobiltzeko, elektrotxaranga izan zen.

2020ko egutegia herritarren eskura

ASTIGARRAGA UDALA

Herritarren esku dago 2020ko udal egutegia. Doan lortu ahal izango da udaletxean, kultur etxean eta Astiko elkarteko dendetan.

Txotx irekierarako bost sarrera zozketan

ASTIGARRAGA SAGARDOA

Bost sarrera bikoitz zozketatuko dira urtarrilaren 15eko Sagardo berriaren egunean, txotx irekieran, parte hartzeko. Informazioa Sagardoetxean bertan lortu daiteke edo 943 55 05 75 zenbakian.

Urteberriko jaia antolatuko da Zipotzan

ASTIGARRAGA URTEBERRIA

Urte berriari ongi etorria emateko Gazte Asanbladak Gaztetopa antolatu du Zipotza tabernan 01:30etan.

IKASLEEN TXOKOA 85. ZENBAKIA

Ingurumen hezkuntza programa





Uraren inguruko gaia lantzean, Añarbeko urtegia eta ur edangarrien araztegia bisitatzeko dituzte ikasleek.



Sendabelarrak egiten ikasten dute ikasleek, landaretzari buruzko gaia lantzean.

Ingurumen Hezkuntza Programa, ikasleetatik etxeetaraino eragiteko

Hernaniko Udalak HI! Ingurumen Hezkuntza Programa bultzatzen du urtero, herriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan. 1991 urteaz gertoztik Artelatz Ingurumen Zerbitzuak lantzen ditu hondakinen, landaretzaren eta uraren inguruko gaiak, ikasleekin.

HERNANI INGURUMEN HEZKUNTZA

Elizatxo, Inmakulada, Langile, Txirrita eta Urumea eskoletako Lehen Hezkuntzako 4, 5 eta 6. mailako ikasle eta irakasleekin lantzen den programa da HI! Ingurumen Hezkuntza Programa. Udalak bultzatu eta babestuta, 1991 urteaz geroztik, Artelatz Ingurumen Zerbitzuak lantzen du programa ikastetxe guztiekin; aurtengoa, 29. ikasturtea da.

Mailaz maila, gai desberdina lantzen dute ikasleek: 4. mailakoak hondakinen inguruan aritzen dira; 5. mailakoak, landaretzaren inguruan; eta 6. mailakoak, uraren inguruan.

Ikasleetatik hasi eta etxeetaraino, eragina

Programaren helburua da, batetik, ikasleek ingurumenaren inguruko ezagutzak lantzea, dauden arazoak zein diren ulertzea eta gizakiak izan behar duen irizpide kritikoaren garrantziaz jabetzea. Horrekin lotuta, inguruan dauden arazoekiko kontzientzia hartu eta ingurumena babesteko giza baloreak lantzen dituzte. Eta azkenik, ingurumen-arazoaren konponbidean guztiok dugun arduraz jabetzea, eta horrekin, Hernani bera ezagutu

eta herria zaindu eta errespetuz tratatzeko jarduerak egitea.

Hasiera batean programa ikasle eta irakasleekin lantzen bada ere, hauen inguruan ere eragiten dute. Izan ere, ikasleek ikasitakoa etxean, familian, lagun taldean aplikatzen dute.

Hondakinak, landareta eta ura, ingurumena zaintzeko hiru bide

Mailaz maila, lantzen dituzten gaiak desberdinak izaten dira, baina metodologia bera jarraitzen dute denek. «Jarduerak dinamikoak, motibagarriak eta erakargarriak izateari ematen zaio garrantzia», Artelatzetik azaldu bezala. Horregatik, gai bat aztertu ondoren, gertuko ingurumena ezagutu eta aztertzen dute ikasleek, ekintza mota desberdinen bidez.

Aurrena, maila bakoitzeko ikasleei, taldeari egokitutako informazioa ematen zaie, landu behar duten gaiari buruzko saio teoriko batekin. Momentu oro ikasleek aukera izaten dute galderak egin eta zalantzak argitzeko, eta zuzenean parte hartzeko. Ondoren, atal teorikoan ikasitakoa modu praktikoan lantzeko tailerra egiten da. Eta bukatzeko, landutako gaiarekin



Ingurumen Hezkuntza proiektua borobiltzeko, ikasleek ikasturtean zehar egindako lanaekin erakusketa jartzzen dute.

Ikasleek ikasitakoa etxean, familian, lagun taldean aplikatzen dute.

lotuta dagoen errealitatea ezagutzeko irteeraren bat egiten da.

Laugarren mailakoak hondakinen inguruko gaia lantzen dute. Aurrena, kontsumoari buruzko hitzaldia entzuten dute Artelatzeko teknikarien eskutik: zer kontsumitzen dugun, zein ohitura dauzkagun erosketak egitean, horrek zenbat hondakin sortzen duen... Segidan, beste saio batean, tailer praktikoak egiten dute, eta zabor poltsa batean aurkitu daitezkeen hondakinak aztertu eta sailkatzen dituzte. Bukatzeko, Urnietako sailkatze planta bisitatzeko dute.

Bosgarren mailakoak, bestalde, landaretzaren inguruko gaia lantzen dute. Hauek ere, aurrena saio praktikoan informazioa jasotzen dute, eta horrekin lotuta, tailerra egiten dute gero. Bi izaten dituzte aukeran:

batetik, paper birziklatua egiten ikasteko aukera izaten dute, eta bestela, nahiago izanez gero, sendabelarrak egiten ikasteko. Bukatzeko, irteera egiten dute, eta hemen ere bi aukera izaten dituzte: Ave Maria parkera joan eta bertako zuhaitzak ezagutu, edota Karabeleko ekonekazaritza etxaldea bisitatu eta bertan landatzen dituzten landare eta barazki edo fruituak zein diren aztertu.

Azkenik, seigarren mailako ikasleek uraren inguruko lan-keta egiten dute. Hauek ere saio teorikoarekin hasten dute programa, eta tailerrarekin segitzen dute. Kasu honetan, Portu auzora joan eta bertatik pasatzen den Urumea errekararen azterketa egiten dute. Era berean, higadura maila ezagutzeko lanketa ere egiten dute. Programarekin bukatzeko, seigarren mailakoak Añarbeko urtegia eta ur edangarrien araztegia bisitatzeko dute.

Lantzen diren gai guztiak ikastetxeetako curriculumetan barneratuta daude, eta osagarriak direnez, egutegia urte

osoa kontuan hartuta zehazten da. Gai batzuk urte garaiarekiko menpekotasun handiagoga izaten dute, landareta edo ura lantzean, adibidez, ekintza asko kanpoan egiten baitira. Era berean, hondakinen gaia lantzeko garai aproposena Gabonen ingurukoa izaten da, «orduante sortzen dugulako hondakin gehien». Horregatik hasi dira gai hori lantzen ikasturte honetan, aurreneko ikasle taldeak.

Ikasitakoa herritarren aurrera, erakusketan

Ikasitakoa herriari erakutsi eta transmititzea ere bada programaren parte. Horregatik, seigarren mailako ikasleek hainbat lan egiten dituzte ikasturtean zehar programari lotuta, eta ikasturte bukaeran, erakusketa jartzeko dute Biterin. Bertan, horma-irudiak, behar ez diren materialekin egindako jostailuak, ekosistema desberdinen inguruko maketak... jartzeko dute, horrela, ikasleek bezala, herritarrek ere ingurumenarekiko kontzientzia landu dezaten. **K**

Hondakinak; ezer baino lehen, murriztu

Elizatxo eskolan hondakin gutxiago sortzen, eta sortutakoa berrerabili eta birziklatzen ikasi dute.

HONDAKINAK 4. MAILA

Ingurumen Hezkuntza Programari Elizatxoko laugarren mailako ikasleek eman diote aurten hasiera, hondakinen gaiarekin.

Black Friday eguna eta Gabonak tarteko, erosketak egitean nolako kontsumo ohiturak izaten ditugun aztertu dute aurrena, saio teorikoan. Konturatu dira erosketak egiteko moduak hondakin gutxiago sortzen lagundu dezakeela, eta hain zuzen, horixe dela aurreneko pausua. Ikasi dute merkatal gune handietara kotxeetan joanda gehiago kutsatzen dugula; apalak antolatzeke moduagatik, produktu

garestienak jartzen dizkigutela eskura; erosketak orgatxoek gurrupilak okerrak egoten direla, eten-gabe apaletara joan gaitzen...

Era berean, gogorarazi dute laster plastikozko poltsak debekatu egingo direla, eta askok azaldu dute poltsak etxetik eramateko ohitura dutela. Horrekin lotuta, saio praktikoan erosketak nola egin landu dute, produktu batzuen eta besteen artean zabor gutxiena sortuko dutenak erostea aukeratuz, eta berrerabilpen tailerra ere egin dute gero, brik ontziekin karterak egiteko.

Bukatzeko, ontzi arinen jarraipena egin zuten, Urnietako sailkatze planta bisitatuta.



Urnietako sailkatze planta bisitatu dute ikasleek, ontzi arinen jarraipena eginez, programa borobiltzeko.



Erosketak egitean hondakin gutxiago sortzen ikasi zuten kontsumo tailerrean.



Materialak berrerabiltzeko tailerrean, brik ontziekin karterak egin zituzten.

Erosketak, hondakin gutxiago sortuz

Saio teorikoarekin lotuta, erosketak zerrendan zein produktu aukeratu erabakitzen aritu dira, hondakin gutxiago sortzeko. Adibidez, hobe da mada-

lenak soltean erosi eta etxetik eramandako poltsan sartu, eta ez bakoitza plastikoz bilduta. Edo ogia, plastikoz bilduta ordez, Kronikan bilduta erostea!

Sortutako hondakinak, bota aurretik berrerabili

Badirudi, hala ere, hondakinak sortzea saihestezina dela. Baina, zuzenean zaborretara bota behar al dira? Ikasleek ikusi dute berrerabili ere egin daitez-

keela, eta erabili daitekeen produktu berri bat sortu, horrela!

Kontsumo tailerrari jarraipena emateko, brik ontziekin karterak egin dituzte. Nahikoa

izan dituzte ontziak, guraizeak, grapa bat eta belkro pixka bat. Hortik aurrera, nola apaindu eta nori oparitu pentsatzea izan dute, lanik handiena!



Zabor poltsetan denetik aurkitu daitezkeela ikusi zuten.

Hondakinak, zabor poltsa barruan

Kontsumo tailerraren ondoren, zabor poltsak aztertzeke saio praktikoak ere egin dituzte. Izan ere, hondakinak murriztu eta berrerabiltzea lortuta ere,

botatzeko moduko zaborrak geratzen dira.

Baina, dena zaborretara botatzeko al da? Hondakinak aurkitu dituzte zabor artean!



Zabor poltsetako hondakinak gaika sailkatu zituzten, birziklatu ahal izateko

Gutxi bada ere, sortutakoa birziklatu

Zabor artean dena ez da zaborra, noski. Poltsak aztertuta ikusi dute hori ikasleek. Hain zuzen, zaborretara botatzen diren gai asko birziklatu egin daitezkeela ikusi dute. Horrexegatik, zabor poltsetatik ateratako hondakinak gaika sailkatu eta zein ontzitan utzi behar diren ikasi dute: ontzi arin, plastiko, brik eta latak alde batetik; jakien arrastoak, hau da, organikoa, bestetik; paper eta kartoiak hirugarren ontzi batean; beira ere beste batean; pila, cd, kargagailu eta antzekoak ontzi berezietan... Eta ontzi arinei jarraipena Urnietako sailkatze plantan egin diete!



Ave Marian izan berri dira ikasleak, zuhaitzak ezagutzen eta garbitzen.

Ave Mariatik parke botanikora, zuhaitzak ezagutu eta garbitzera

Landaretzari buruzko gaiari lotuta, saio teorikoa jaso ondoren, paper birziklatua egin edo sendabelarrak prestatzen ikasteko tailer praktikoak izaten dituzte

aukeran ikasleek, eta ondoren, parke batera joaten dira, bertatik bertara, landare eta zuhaitzen inguruko informazioa jaso eta txukunketa lanak egitera.

Inmakulada ikastetxeko LHko 5. mailakoak Ave Marian izan berri dira, eta laster, Parke Botanikoan ere izango dira, bertako flora ezagutzeko.



Eskolan diagnostikoa egin dute, ura, argia, berogailua eta hondakinen bueltan.

Hondakinen arloan, bada zer hobetu

Ikasle helduxeagoak, LH 6. mailakoak, urari lotutako gaia lantzen ari dira, eta besteak beste, ikastetxeko diagnostikoa egin dute. Aztertu dute eskolan ura,

argia, berogailua eta hondakinen kudeaketa eta erabilera egokia egiten ote den; hondakinak sailkatu eta argia egoki erabiltzen badute zer hobetu!



Lorategia, balkoietakako jardinerak eta geletako baratzak zaintzen dituzte.

Klima aldaketak eragina, lorategian

Baratzagintza eta loredun landareen lorategiak ere lantzen ari dira ikasleak. KMO produktuak, hau da, tokian tokikoak eta garaian garaikoak sustatzea ga-

rrantzitsua dela ikasi dute, karbonoaren aztarna gutxitzeko, eta beraz, klima aldaketan gutxiago eragiteko. Lorategia urte osoan zainduko dute, horretarako.



Geletan jarritako baratzetatik patata eta azelgak jaso dituzte.

Urtez urte, uzta berria!

ingurumen Hezkuntza Programa urtero lantzen denez, aukera izaten da proiektu batzuk denbora tarte luzeagoan garatzeko. Horrela, gelaz gela baratza txikiak jarri dituzte aurtan ere ikasleek, eta dagoeneko uzta jasotzeko aukera ere izan dute! Irailean tomateak jaso zituzten, eta «goxoak zeuden», aitortu dutenez. Orain, berriz, KMO kontzeptua eta tokian tokiko eta garaian garaiko baratzien aldeko apustua egiten dutenez, azelga eta patata txikiak bildu berri dituzte. Baina perrejila, ilarra... ere landatu dituzte, eta iaz bezala, aurtan ere uzta oparoa jasotzeko asmoa daukate!

Baliabideak erabiltzen ikasi, xahutu gabe

Landaretzaren inguruko gaia lantzen ari dira Inmakuladako 5. mailako ikasleak, eta Ave Maria parkean izan berri dira. Bestalde, 6. mailako ikasleek eskolako diagnostikoa egin dute.

LANDARETZA ETA URA 5-6 MAILAK

Inmakulada ikastetxeko ikasleak Ingurumen Hezkuntza Programako beste bi gai lantzen ari dira. Lehen Hezkuntzako bosgarren mailakoak landaretzari lotutakoa garatzen ari dira, eta 6. mailakoak, aldiz, uraren ingurukoak.

Landareak, apaingarriak baino gehiago

Programako gai guztiekin bezala, saio teorikoarekin hasi dira landaretzari buruzko informazioa ezagutzen. Landareak ezinbestekoak dira gizakiak ku-

tsadurarekin eragiten duen klima aldaketari aurre egiteko, horren eragin kaltegarriak gutxitzeko, eta planetan bizi diren espezie mota guztien biziraupenerako.

Horrez gain, gizakiak urte-tan landareak erabili izan dituzte etekina ateratzeko. Horrela, tailer praktikoan aukera izan dute, besteak beste, sendabelarrak egiteko, landareak erabilia. Era berean, papera ere zuhaitzetik datorrela ikusi daiteke beste tailer batean, eta hainbeste zuhaitz moztea saihesteko, papera birziklatu daitekeela.

Gaia borobiltzeko, Ave Maria parkean izan berri dira 5. maila-

ko ikasleak, bertako flora ezagutu eta txukunketa lanak egiteko. Parke Botanikoa bisitatzeko asmoa ere azaldu dute.

Baliabideak, modu egokian

Ikasle zaharragoak, bestalde, LHko 6. mailakoak, uraren inguruko gaia lantzen ari dira. Tailer praktikoan Portu auzora jaitsiko dira, bertatik pasatzen den Urumea errearen egoera aztertu eta higadura maila ezagutzeko. Laginak aterako dituzte, bakoitzaren ezaugarrien azterketa egin ahal izateko.

Gaia borobiltzeko, Añarberko urtegia eta ur edangarrien araztegia bisitatuko dituzte. Izan ere, urtegian euri ura jasotzen da, baina gizakiok edan ahal izateko, aurretik prozesu bat pasa behar izaten du, araztegian.

Horregatik, horri lotuta, esku-

ra dauzkagun baliabideak modu egokian erabiltzea zein garrantzitsua den ikasten ere ari dira ikasleak. Horretarako, eskolako diagnostiko orokorra egin berri dute, ura, argia, berogailua eta hondakinen kudeaketaren eta erabileraren inguruan. Baliabide horiek alferrik erabilia, agortzeaz gain, klima aldaketan eragin kaltegarriak izan ditzaketela ikusi dute.

Diagnostikoa bukatu berri dute, eta txosten osoa garatzen ari badira ere, zer edo zer aurreratu dute, dagoeneko. Hondakinak modu egokian sailkatzen ote diren aztertu dute gelaz gela, eta ondorioztatu dute «orokorrean akats asko egiten» dituztela. «Ia egunero topatu ditugu zaborra gaizki sailkatuta zuten gelak. Ondoen egiten dutenak Haur Hezkuntzakoak dira». Argiaren erabilerari dagokionez,

«komun eta pasiloetako argiak oso gaizki erabiltzen» dituztela konturatu dira. «Askotan aurkitu ditugu piztuta, inor ez zebilenean ere. Argia ondoen erabiltzen dutenak DBHko ikasleak dira». Azkenik, ura modu egokian erabiltzen ote duten ere ikertu dute eta kasu honetan, txukun dabilzala ondorioztatu dute. «Oso gutxitan aurkitu dugu iturri bat irekita beharrik gabe».

Agenda 21ekin lotura

Ikasitakotik ateratako ondorioei jarraipena ematen diete behin programa bukatuta. Horrela, identifikatu dituzten arazoekin txostena osatu eta Agenda 21 programako ardura duen ikasleari jakinaraziko diote, aurrerantzean neurriak hartu, hala izateko. Ingurumena zaintzea denon etengabeko ardura baita! **K**



Txistorra izaten da Santo Tomasetan protagonista nagusia eta Astigarragan ere bai.

Aurreko larunbatean ospatu zuten, gaurko Santo Tomas

ASTIGARRAGA SANTO TOMAS Santo Tomas eguna ospatzen da gaur, baserritarrek azokara baserrian landutako produktuek, Gabonen aurretik,

saltzeko jaisten zituzten egun haundia. Donostia jendez lepo egongo da, baina Astigarragan ere ospatzen da. Hori bai, gaur ez, baizik eta aurreko larun-

batean ospatu zuten astigarrak, Santo Tomas. Arrakasta izan zuen: jende asko hurbildu zen, eta Foru Plazan giro ezin hobea izan zen.



Baserritar jantziekin irten ziren astigarrak kalera.



Ikasleek egindako eskulanak ikusi zitezkeen.

Euskaraldiaren dinamizatzailea kontratatzeke prozesua martxan da

Euskaltzaleen Topaguneak Euskaraldia lantzeko pertsona bat hartuko du eta urtarillaren 9ra arte bidali daitezke curriculum vitaeak.

ASTIGARRAGA UDALA

2020an egingo da Euskaraldia berriro, baita Astigarragan ere; eta herriko jarduerak aurrera eramateko, pertsona bat kontratatuko du Euskaltzaleen Topaguneak.

Horretarako, lan eskaintza zabaldu dute: urtarillaren 9ra arte entregatu daitezke curriculum vitaeak, udaletxean. Urta-

rrietik abuztura, egunean lau orduko lanaldia izango da, eta irailetik abendura sei ordukoa.

Egin beharko du, besteak beste, eragileei eta herritarrei Euskaraldia aurkeztu, Euskaraldiko Batzordea eratu, tokian tokiko komunikazio plangintza bideratu eta ekimenak garatu, herritarrek ahobizi/belarriprest dinamikarako aktibatu eta prestatu, herritarren

eta entitateen izen ematea antolatu, balorazioa eta aurrera begirako urratsak adostu herriko euskaltzaleekin, dinamizatu, aurrekontua kudeatu...

Betebeharreko baldintzak hautagaiei

Honako baldintzak betetzea ere eskatu zaie hautagaiei: euskera maila egokia izatea (idatziz zein ahoz), Astigarraga eta eskualdea ezagutzea, euskaltzalea izatea eta euskalgintzan ezagutza izatea eta jendaurrean eta jendearekin harremanetarako gaitasuna izatea. **K**

Aiotzategi kaleko alokairu sozialeko etxebizitzetarako izenematea zabalik

Urtarrilaren 31ra arte dago epea eskaerak aurkezteko eta 7 etxe zozketatuko dira.

ASTIGARRAGA UDALA

Datorren urtearen hasieran, alokairu sozialeko zazpi etxebizitza zozketatuko ditu Astigarragako Udalak, Aiotzategi kaleko 4garren atarian. Eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea, parte hartzeko.

Urtarrilaren 31ra arte egin daitezke eskaerak, udaletxean. Horretarako, aurkeztu beharko dira honakoak: eskaera orria beteta; familia-liburua eta kide

guztien NANaren fotokopia; denen errolda ziurtagiri eguneratua, Udalak egin; diru-sarrerak dituzten guztien 2018ko errenta aitortpenaren fotokopia; edota etxebizitzan biziko diren kideen zerrenda, adina eta diru-sarrerak zehaztuz.

Zozketan parte hartu ahal izateko, urteko diru-sarrerak izan beharko dira 3.000 euro eta 39.000 euro artekoak; baina lehentasuna izango dute 25.000 euro baino gutxiagoko diru-sa-

rrierak dituztenek.

Zazpi urteko iraupena izango dute alokairu kontratuek

Une honetan, okupatuta dade etxebizitza horiek, baina martxoaren 31n bukatuko zaie kontratua, horietan bizi direnei. Alokairu sozialeko kontratu berriek, zazpi urteko iraupena izango dute; baina urtero errebisitatuko da, ziurtatzeko hasierako baldintzak betetzen direla.

Zozketaren oinarriak eta eskaera orriak eskuragarri daude, Astigarragako Udalaren web orrian: astigarraga.eus. **K**

Jolas Txiki parkea etzi irekiko da eta Jolas Aretoa berriz ostegunean

ASTIGARRAGA MUNDARRO

Mundarrok Gabonetarako antolatzen duen Jolas Txiki parkea etzi irekiko da Astigarragako kiroldegian. 2-5 urte arteko umeentzat antolatutako joko didaktikoak, lankidetzakoak eta taldekoak egiten dira. Bi txanda daude: abenduaren 23, 26, 27 lehen txandan eta abenduaren 30, urtarrilaren 2 eta 3 bigarrena. 09:00etatik 13:00etara. Bestetik, 9-12 urte bitartekoentzat Jolas Aretoa jarriko da 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30etara kultur etxean. Sarrera irekia eta doakoa da eta abenduaren 26, 28, 28 eta 31n eta urtarrilaren 3an egongo da zabalik.

Futbol, pelota eskubaloi eta saskibaloi saio irekiak antolatu ditu Mundarrok

ASTIGARRAGA MUNDARRO

Mundarro kirol elkarteak saio irekiak antolatu ditu datorren astetik aurrera kirol desberdinetan. Etzi astelehenean eskubaloi eta saskibaloiaren txandak izango dira. Eskubaloioek 10:30etan jarri dute zita kiroldegian LH3, LH4, LH5 eta LH6 mailakoentzat. Saskibaloi saio irekia 11:30etan hasiko da. 2012an jaiotakoentzat bi zita jarri dira. Lehendabiziko Zarkumendegin, abenduaren 27an, ostiralean, 17:00etan, eta zapatilla eta arropa egokia eman behar dira. Abenduaren 30ean pelotako saioa egongo da, Txomifenean, 17:00etan. Kirolaz gozatu nahi duenak badu aukera.

Jon Garañoren 'La trinchera infinita' filmak, 15 nominazio Goya sarietan

ASTIGARRAGA ZINEA

2018an Handia filmarekin 10 Goya sari jaso ondoren, makina bat hautagaitzarekin bueltatuko da Jon Garaño astigartarra, 2020ko sari banaketara. Izan ere, 15 nominazio jaso ditu, Aitor Arregi eta Jose Mari Goeneagarekin batera zuzendu duen *La trinchera infinita* pelikulak. Horien artean daude, Garañori berari zuzenean dago-kionean, pelikula onenaren eta zuzendaritza onenaren sariak. Eta horiekin batera, honakoak: gidoi originala, musika originala, emakumezko eta gizonezko aktore onenak, gizonezko ezusteko aktorea, produkzioko zuzendaritza, muntaia, argazki zuzendaritza zein artistikoa, jantziak, makillajea eta pelukeria, soinua, eta efektu bereziak. Urtarrilaren 25ean egingo dute sari banaketa.

'Napardeath' filma, afaria eta Atopia rol jokoia, plan hirukoitza gaur zortzi

Arratsaldetik gauera bitarteko plana osatu dute Aranon, datorren larunbaterako. Afarian eta rol jokoan parte hartzeko, aurrez abixatu behar da.

ARANO JALKI KULTUR ELKARTEA

Plan berezia antolatu dute Aranon, Gabonetako oporraldirako. Gaur zortzi izanen da, eta plan hirukoitza prestatu dute: pelikula, afaria eta jokoia.

Hasteko, *Napardeath* filma ikusiko dute, Maisuenean, arratsaldeko 19:00etan. Gainera, bertan izango da Beñat Iturriotz zuzendari hernaniarra, pelikulako beste hainbat partehartzaileekin batera; eta



Zonbiak dira 'Napardeath' pelikulako protagonistak, Zumalakarregi buru dela.

solasaldirako tartea egingen dute pelikula ikusi ondoren.

Planari segida emateko, afaria egingen dute elkarrekin. Eta eguna borobiltzeko, Atopia rol jokoan ariko dira primizian, oraindik kaleratu gabea baita. Euskerazko aurreneko rol jokoia

da, eta egileen artean daude Ohiana Calparsoro, Nerea Ansa eta Unai Gorrotxategi aranoarrak, besteak beste.

Afarirako zein rol jokorako, aldeztatik abixatu behar da, jalkikulturelkartea@gmail.com helbidera idatzita. **K**

Urtea bukatu aurretik, bazkariarekin eta mus txapelketarekin hitzordua

Bihar egingen dute Umore Ona elkarteak bazkaria, 14:30etan hasita; eta abenduaren 31n jokatu da elkarteak mus txapelketa.

GOIZUETA UMORE ONA ELKARTEA

Urtea bukatu aurretik, ohiko bi hitzordu izanen ditu oraindik, Umore Ona elkarteak. Bihar bertan egingen dute aurrenekoa, elkarteak bazkideen bazkaria, Umore Onan bertan. Eguerdiko 14:30etan hasita, menua zein izanen duten ere jakinarazi dute: zizka-mizkak, valentziar

erara egindako paella, postrea, kafea eta kopa.

Bertan bazkaldu nahi zuten bazkideek, hala ere, aldeztatik eman behar zuten izena, elkarteak bertan edo Amaia kafetegian, 5 euroan.

Mus txapelketa, hilaren 31n

Eta bigarren hitzordua, urteko azkeneko egunerako jarri dute,

abenduaren 31rako. Mus txapelketa jokatu dute 35garrenez, arratsaldeko 16:00etan hasita, Umore Ona elkarteak.

Parte hartu nahi duten guztiei irekia izanen da txapelketa, eta joan den urtean, bikoiztu egin zen bikote kopurua; 22 izan ziren guztira. Sari potoloagoak ere izan ziren iaz, eta aurten bide beretik jarraituko dute: 100 euro eta opariak irabazleentzat, 50 euro eta opariak bigarren sailkatuentzat, eta opariak hirugarren eta laugarren sailkatutako bikoteentzat. **K**

'Umonez' kantari, gaztetxo zein abeslari

GOIZUETA GABONETAKO KONTZERTUA

Aurreko asteburuan eskaini zuten Gabonetako kontzertua, Goizuetako elizan, Umore Ona abesbatzako kideek eta herriko gaztetxoek. Eneko Amundarainek zuzenduta aritu ziren abesbatzakoak, eta Ainara Narbarte zuzenduta gaztetxoak; eta eliza beteta zela, talde bakoitzak bere emanaldia eskaintzeaz gainera, elkarrekin ere aritu ziren. Dantza saiorik ere ez zen falta izan, eta ezta kontzertuaren ondorengo bazkaririk ere, elkarteak.



Umore Ona abesbatza eta gaztetxoak kantari, elizan. Argazkia: Felix Loiarde

Barrikotea, afalorduko hitzordua Ur-Mian

Gaur egingo dute urteroko barrikotea, Ur-Mia elkarteak. Iluntzeko 20:30etan hasiko da, eta aldeztatik apuntatu behar zen.

EREÑOTZU UR-MIA ELKARTEA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, barrikotea egingo dute gaur, Ereñotzuko Ur-Mia elkarteak. Gabonak gainean direla aprobetxatuz, festa giroari hel-

duko diote auzotarrek, mahaiaren bueltan elkartu, eta ondo pasatzeko. Barrikotean parte hartzeko, dena den, aldeztatik eman behar zen izena, Ur-Mian bertan, auzoko dendan edota Irrintzi tabernan. **K**

'Oreina' pelikula bihar, jangelan

GOIZUETA KULTUR AGENDA

Zinearekin daukate hitzordua bihar, goizuetarrek. Izan ere, *Oreina* filma jarriko dute, arratsaldeko 18:00etan hasita, Xalto eskolako jangelan. 12 urtetik gorakoentzat da, eta 2 euroan izanen dira sarrerak. Datorren ostiralean, berriz, *Amonaren istorioak* ipuin kontaketa izanen da, haurrentzat, Amaia Elizagoienaren eskutik. Xalto eskolako jangelan egingen dute hori ere, 17:00etan hasita.



12 bikote aritu ziren guztira, Irrintzi tabernan.

Angel eta Pepe txapelkun, musean

EREÑOTZU EH MUS TXAPELKETA Aurreko asteburuan jokatu zen Ereñotzun, Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketa; eta 12 bikoteraren artean, Angel

Pikabea eta Pepe Kaloka izan ziren onenak. Felix eta Ander Polaina aita-seei irabazi zieten finalean. Bi bikoteak sailkatu dira, Gipuzkoakora.



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai, bakarrizketan. Argazkia: Eider Lasarte

Umoretzu, udazkena agurtzeko

EREÑOTZU UDAZKEN KULTURALA Joan den astean eman zioten bukaera, baita giro ederrean eman ere, aurtengo Udazken Kulturalaren programari. Barre

algaraz bete zuten Ur-Mia elkarteak goxotasuna, Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai, *Bakean dagoenari bakean utzi* bakarrizketarekin.

Matxin IIIk eta Barrenetxea IVk finalerako txartela lortu nahi dute gaur Galarretan

Aurrelari azpeitiarra eta atzelari hernaniarrak Juanenea eta Azpiroz izango dituzte aurrez aurre Binakako Txapelketaren finalerdietako ligaxkaren azken partiduan 17:00etatik aurrera.

HERNANI ERREMONTA

Binakako Txapelketaren azken finalerdia jokatu da gaur Galarretan eta bertan Barrenetxea IV, erremontista hernaniarra, arituko da Matxin IIIrekin batera. Aurrez aurre Juanenea eta Azpiroz nafar gazteak izango dituzte eta garaileak, datorren larunbateko finalerako txartelak lortuko dituzte.

Jaialdiko bigarren partidua izango da eta 17:00etan hasiko da partidua gutxi gora behera. Bikote irabazlea Urriza eta Larrañagari gehituko da final haundian. Hauek ligaxkaren bi partidua irabazi zituzten aurreko astean eta zortzi punturen finalera sailkatu ziren beste emaitzaren zain egon gabe.

Gaurko bi bikoteak berriz beraien partidua galdu zituzten Urriza eta Larrañagaren aurka. Hori bai, emaitza desberdinekin. Matxin eta Barrenetxea 29an geratu ziren eta Juanenea eta Azpiroz 38an. Azken hauek bi puntu batu zituzten eta bikote gipuzkoarrak bat bera ere ez. Hala ere, gaur irabazten duena

sailkatuko da finalera tanteoari begiratu beharrik gabe. Bi bikoteak launa berdintzen badute sailkapenean, gaurko irabazlea da pasatzen dena euren arteko partidua hartzen baita kontuan berdinketaren kasuan.

Indarra eta segurtasuna batzen dituen bikotea dute aurrean

Horrexegatik dena edo ezerrez jokatzeko dute gaur. Berez Matxin eta Barrenetxea dira faborito paper gainean, baina lehenengo partiduan erakutsi zuten bai Juaneneak eta baita Azpirozek ere, bikote sendoa osatzen dutela eta maila oso ona dutela. Gainera biak jokoarekin daude eta oso pelotari arriskutsuak dira. Juaneneak kolpe haundia du eta mina egiten du pelotari abiada bizia emanez. Azpiroz berriz beste motako atzelaria da. Oso segurua, pelota gutxi galtzen dituen eta nahiz eta tanto askorik ez egin peloteoan sendoa da eta irabazlea.

Horren erakusgarri da aurreko urteko finalerdietan gertatu zena. Orduan ere Azpiroz eta



Barrenetxea eta Azpirozek pasa den urtean ere finalerdia jokatu zituzten bata bestearen aurka.

Barrenetxea ziren aurrez aurre. Hernaniarra Ansarekin batera eta Huizikoa Utergarekin. Orduan finalerdia bi partidutara jokatu ziren eta bietan Uterga eta Azpiroz nagusitu ziren. Azpiroz finalera eta Barrenetxea kalean geratu zen.

Egia da aurten bikote desberdinak direla, baina atzelari gazteak erakutsi zuten bere maila eta Juanenearekin batera konfiantza haundia ari dira erakusten.

Gero gainera txapela irabazi

zuten Uterga eta Azpirozek. Hori da Barrenetxeak nahi duena, txapela; baina horretarako gaur irabazi beharra dute berak eta Matxinek.

Urtea borobiltzeko aukera du atzelari hernaniarrak

Barrenetxearentzat urtea borobiltzea izango litzateke Binakako finalera iristen bada. Aurten Banakakoa irabazi zuen eta ordutik maila oso altua ari da erakusten. Partidu guztietan atzelaririk puntakoena dela argi

utzi du urtearen bigarren erdialdean.

Matxinekin ongi konpontzen da, nahiz eta lehenengo partiduetan ez ziren ondo aritu eta konpondu bikote bezala. Barrenetxeak badu Binakako txapela, Urrizarekin lortutakoa 2012an, baina ordutik ez du ez txapelik ez eta finalik jokatu ere. Azken hiru urteetan Uterga izan da jaun eta jabe Endika, Etxeberria III eta Azpirozekin txapelak irabazita eta aurten Barrenetxeak finala nahi du. **K**

49. BINAKAKO ERREMONTA TXAPELKETA NAGUSIA 2019

Orona fundazioa



ABENDUAK

21

Larunbata
16:00h.

%60

Hernaniar guztiak
beherapena (sarrera:10€)

ERREMONTA BIZIRIK



URRIZA
LARRANAGA

VS

JUANENEA
AZPIROZ



etxe onenak

ORIAMENDI
2010

JAI-ALAI
galarreta

Elizazuk eta Jarak ezin izan zuten Baztango finala irabazi

Elizazuk infantil mailan Garaikoetxearekin batera 18-9 galdu zuten Oiarpeko bikotearen aurka eta Jarak, 18-14, galdu zuen Eskuzakin Tolosaren kontra.

URUMEA PELOTA

Bart ilunabarrean Eñaut Lizeaga astigartarrak Tolosako Ezenaroren kontra Gipuzkoako Txapelketaren Banakakoaren finalaurdena jokatu zuen lehenengo mailan eta Unax Uitz hernaniarrak Oñatin jokatu zuen finalerako sailkapena Gipuzkoako Banakako Txapelketan bigarren mailan. Uitzik emaitza horren arabera finalerdiak jokatu ditu Anartz Oiarpezabal taldekidearen aurka edo finalera zuzenean sailkatu. Asteburu honetako partidu ofizialia bakarrik izango dira.

Hala ere pasa den asteburuan partidu garrantzitsuak jokatu zituzten Hernaniko pelotariak. Honela esanguratsuenak Aiur Elizazu eta Jon Jarak Elizondon jokatu zuten Baztango finalak izan ziren, infantil eta kadete mailan hurrenez hurren.

Biak finalak galdu zituzten eta azpitxapeldun geratzearekin konformatu behar izan zuten. Lehenengo finala Aiur Elizazuk jokatu zuen, Garaikoetxea nafarrarekin batera. Oiarpeko



Aiur Elizazu eta Jon Jara azpitxapeldun kopekin.

Elizazuk eta Leonet zituzten aurkari eta hauek hobeak izan ziren. 18-9 irabazi zuten finala Elizazu eta Garaikoetxearen kontra. Kadete mailako finala estuagoa izan zen, baina Jara eta Eskuzak arabarrak 18-14 galdu zuten Tolosako Amiano II eta Iztuetaren kontra.

Trinketean eta txapelketa pribatueta partidu gehienak Asteburu honetan partidu gehienak trinketean jokatu dira.

Guztira zazpi partidu jokatu dituzte Hernaniko pelotariak.

Txapelketa pribatueta ere partiduak jokatu dituzte hernani eta Goizuetako pelotariak batez ere. Umore Onako txapelketa gaur eta bihar jokatu dira Goizuetan eta hernaniarrek lurralde guztitik zehar ariko dira.

Salaberria pasa den astean ez zela aritu eta Dariok ordezkatu zuen Binakako Promozio Txapelketan, baina 17:00etan bihar Arrasaten jokatzeko da. **K**



San Silbestrea atzo aurkeztu zuten Plazako arkupean.

Inuxente Krosa eta San Silbestrea, gertu

Bihar izango dute Inuxente Krosa Astigarragan, haur eta helduek, arratsaldeko 16:30etan hasita.

URUMEA ATLETISMOA

Bihar, urteroko Inuxente Krosa jokatu da Astigarragan. Arratsaldeko 16:30etan hasiko dira haurren lasterketak, eta 17:30etan izango da helduen txanda, 6 kilometro osatzeko. Guztiak, Kale Nagusitik abiatu eta bertan bukatuko dira. Haur zein heldu, igandean bertan eman beharko dute izena, irteera gunean, 15:30etatik aurrera. Haurren kasuan doakoa da, eta helduek 5 euro ordaindu beharko dituzte. Opari bana jasoko dute partehartzaileek, eta sariak azkarrenek.

San Silbestrerako izenematea zabalik dago eta karpa eta mahaia jarriko dira San Silbestrean izena eman daite-

ke dagoeneko. Aurten ere bat egin dute Hernaniko atletismo sailak eta Hernani Wukroekin GKEak, San Silbestre eguneko lasterketa antolatzeko. Hilaren 31n egingo da, 18:00etan, 4 kilometroko buelta, eta izenemateak irekita daude www.rockthesport.com webgunean edo Ibaimendin, 8 euroan.

Egunean bertan 11 euroan eman ahal izango da izena. Parte-hartzaile guztiak jasoko dute kamiseta opari, eta maila bakoitzeko saridunetz gain, mozturro polit edo dibertigarrienari ere saria emango zaio. Plazan hasi eta bukatzen da lasterketa. Gazteenek, zortzi urte, 17:30etan egingo dute 300 metro lasterka eta 8-13 urte bitartekoek, 17:45etan, 800 metrokoa.

Karpa bat eta mahaia jarriko dira azken momentuko izen emateak egiteko eta lasterketako dortsal zein kamisetak banatzeko, ondorengo egun eta orduetan. Abenduaren 23an Plaza Berrin edo Tilosetan eguraldiaren arabera 16:00etatik 20:30etara. Abenduaren 24an 10:00etatik 14:30etara eta abenduaren 30ean 15:00etatik 21:00etara. **K**

ERRUGBIA			
SENIOR NESKAK	Landarbaso-La Unica	Altamiran	Bihar 12:00
FUTBOLA			
JUBENIL NAZIONALA	Beasain-Hernani	Loinaz	Gaur 12:00
SASKIBALOAIA			
MUT. 1GO MAILA	Hernani-Atlético SS	Kiroldegian	Gaur 12:00
MUT. 1GO MAILA	Zarautz-Mundarro	Aritzbatalden	Bihar 18:00
MUT. JUNIORAK	Hernani-Atlético SS	Kiroldegian	Gaur 10:00
ESKUBALOAIA			
JUNIOR NESKAK	Usurbil-Mundarro	Usurbilen	Gaur 10:30
JUNIOR NESKAK	Ereintza-Hernani	Errenterian	Gaur 10:00
KADETE MUTILAK	Elgoibar-Hernani	Elgoibarren	Gaur 17:00
ERREMONTEA			
1GO PARTIDUA	Segurola/Aldabe	Galarretan	Gaur 16:00
BINAKAKO TXAPELKETA	Matxin III-Barrenetxea IV/Juanenea-Azpiroz	Galarretan	Gaur 16:00
3. PARTIDUA	Urriza-Zubiri/Ansa II-Ion	Galarretan	Gaur 16:00

4. PARTIDUA	Urrutia II-Larrañaga/Goikoetxea V-Garcés	Galarretan	16:00
WATERPOLOA			
EUSKAL LIGA 2. MAILA	Santoña-Hernani	Santoñan	Gaur 10:00
BOLEIBOLA			
MUT. EUSKAL LIGA	Hernani-Sestao	Kiroldegian	Gaur 12:00
NESK. SENIORRAK	Goierri-Hernani	Urretxu	Gaur 17:00
PELOTA			
PROMOZIO BINAKAKO TXAP.	Alberdi-Salaverri/Salaberria-Garmendia	Arrasate	Bihar 17:00
MUT. KAD. TRINKETEAN	Unai Etxarri/Oiarpe	Gaska	Bihar 09:30
MUT. KAD. TRINKETEAN	Oiarpe/Mattin Arluziaga	Gaska	Bihar 10:30
MUT. JUB. TRINKETEAN	Mikel Lasa/Behar Zana	Irura	Gaur 15:00
MUT. JUB. TRINKETEAN	Oinatz Insausti/Oiarpe	Irura	Gaur 15:30
MUT. JUB. TRINKETEAN	Behar Zana/Aimar Mujika	Irura	Gaur 17:00
MUT. NAG. TRINKETEAN	Unai Alvarez/Lagunak	Gaska	Gaur 10:00
MUT. NAG. TRINKETEAN	Endika Arizmendi/Pagazpe	Irura	Gaur 12:00

LIZARRAKO TXAP.	Aiur Elizazu/Zehazu Gabe	Lizarra	Bihar 11:30
LIZARRAKO TXAP.	Xabier Apaolaza/Zehazu Gabe	Lizarra	Bihar 12:30
LIZARRAKO TXAP.	Jon Jara/Zehazu Gabe	Lizarra	Bihar 17:00
TXAP. PRIBATUA	Pablo Ojuel-Urruzola/Apezetxea-Azanza	Atano	Gaur 17:30
TXAP. PRIBATUA	Exposito-Lizeaga/Zehazu Gabe	Villabona	Gaur
UMORE ONA TXAPELKETA	Larin-Garmendia/Narbarte-Sagardui	Goizueta	Gaur 11:00
UMORE ONA TXAPELKETA	Oiarpe/Salaberria-Apezetxea	Goizueta	Gaur 11:00
UMORE ONA TXAPELKETA	Aristi-Salegi/Galarraga-Iruretagoiena	Goizueta	Bihar 10:00
UMORE ONA TXAPELKETA	Arribillaga-Goikoetxea/Galartza-Gurrea	Goizueta	Bihar 10:00
NAFARROAKO JOKOAK	Txaruta/Legarreta-Elizegi	Goizueta	Gaur 11:00
NAFARROAKO JOKOAK	Irurtzun/Sagardui-Lujanbio	Goizueta	Bihar 10:00
NAFARROAKO JOKOAK	Arbizu/Sagardui-Lujanbio	Goizueta	Bihar 10:00
NAFARROAKO TXAPELKETA	Berriozar/Umore Ona C	Berriozar	Gaur 11:00
NAFARROAKO TXAPELKETA	Erreka/Umore Ona B	Doneztebe	Gaur 16:00

Mundarrok eta Hernanik urtea garaipenarekin amaitu nahi dute

Hernaniarrek gaur jokatu dute Atlético San Sebastianen aurka kiroldegian eta astigartarrak bihar Zarautzen ariko dira urtea amaitzeko.

ASTIGARRAGA HERNANI SASKIBALOIA

Mundarro eta Hernani gizonen senior taldeek asteburuan jokatu dituzte urteko azken partiduak. Jardunaldi ia osoa atzo jokatu zen, baina hernaniarrek eta astigartarrak gaur eta bihar jokatu dute. Lehendabizikoak kantxaratzten hernaniarrek izango dira. Gaur, 12:00etan, Atléticoren bisita jasoko dute kiroldegian. Mundarrok, berriz, gehiago itxaron beharko du. Bihar Zarautzen ariko da, 18:00etatik aurrera.

Irabazi daitezkeen partiduak
Bai hernaniarren eta astigar-



Hernanik gaur kiroldegian jokatu du 12:00etan.

tarren aurkariak ez dira sailkapeneko lehenengo postuetan daudenak, beraz irabazi daitezkeen norgehiagokak dira. Atlético zortzigarrena da eta Hernani

13garrena bi garaipen gutxiagorekin. Zarautz eta Mundarro berdindurik daude launa garaipenekin, bederatzia eta hamargarren. **K**

Hernani Eskubaloi Taldeak ate irekiak antolatu ditu Gabonetan

Abenduaren 26 eta 27an, 16:00etatik 18:00etara kiroldegian egingo da eta 2008 eta 2011 artean jaiotakoei dago zuzendua.

HERNANI ASTIGARRAGA ESKUBALOIA

Hernani Eskubaloi Taldean aurreko urteetan egin den bezala, opor garaian eskubaloia ezagutu nahi duten 2008-11 urteetan jaiotako umeei zuzendutako jardunaldi irekiak antolatu dituzte Hernaniko kiroldegian. Aurten bi egun izango dira, abenduaren 26 eta 27an, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.

Saio horien helburua esku-

baloien oinarriko arauak ezagutaraztea eta era berean kirol horren praktikarekin ondo pasatzea da. «Hernaniko neska-mutiko guztiak animatu nahi ditugu gurera etor daitezen, eskubaloia proba dezaten eta, nahi badute, gure klubean sar daitezten».

Gainera parte hartzen duten guztientzako opariren bat izango da. Beraz aukera ezin hobea da Gabonetarako.

Asteburuan hiru partidu jokatu dira

Asteburu honetan egongo dira eskubaloi partiduak, baina ez besteetan bezainbeste. Hiru taldek jokatu dute Hernani eta Astigarragan. Junior nesketan Mundarro gaur Usurbilen ariko da 10:30etan. Hernaniko junior neskek ere kanpora irtingo dira. Errenteriko kiroldegian, 10:00etan, Ereintza izango dute aurrez aurre. Eta asteburua amaitzeko, Hernaniko kadete mutilek Elgoibarren jokatu dute, 17:00etan, 2019 urtea amaitzeko. **K**



Sestaoren aurka amaituko du urtea Hernanik.

Mutil eta nesken taldeek urtea borobildu nahi dute

Sestaoren aurka ariko dira mutilak, 12:00etan, eta neskek Urretxun jokatu dute 16:00etan, Hasierako Txapelketa.

HERNANI BOLEIBOLA

Mutilen eta nesken talde nagusiek gaur emango diete amaiera 2019 urteari. Urteko azken bi partiduak etxetik kanpo jokatu dituzte. Mutilek, Euskal ligan, kiroldegian jokatu dute gaur, 12:00etan, Sestaoren aurka. Azken hiru partiduak galdu

dituzte lehendabiziko hiru sailkatuen aurka eta gaur irabaziz gero laugarren amaituko lukete urtea.

Neskek garaipen guztien bila
Hernaniko nesken senior taldea Gipuzkoa mailan ari da jokatzen. Gipuzkoako Hasierako Txapelketan sei partidu jokatu ditu eta denetan lortu du garaipena. Hala ere, partidu bat geratzen zaio, gaur, 17:00etan, Urretxuko kiroldegian jokatu duena Goierriren aurka. Hernaniarrek faborito argiak dira partidua irabazi eta txapelketa hau irabazteko. **K**

Errugbi taldeak denda jarri du Plaza Berri ondoko lokalean Gabonetan

HERNANI ERRUGBIA

Azken urteetan bezala, Hernani Club Rugby Elkarteak Plaza Berri ondoko lokalean, Ikertxo gozotegia zenaren lokalean, jarri du jada irekita dagoen denda. Gabon guztietan zehar egongo da zabalik arratsaldeko ordutegian baina egun konkretu batzuetan ere goizean egongo da irekita. Ordutegia honakoa izango da: Astelehene-tik ostiralera: 17:00etatik 20:00etara. Abenduak 23, 24 eta urtarrilak 4an: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Bestetik aste honetan nesken taldeak Ordizian jokatu du La Unicaren aurka, bihar, 12:00etan.

Jubenilak Loinazen ariko dira gaur

HERNANI FUTBOLA

Asteburu honetan ez dago apenas partidurik. Ohorezko Erregionalak bart gauean jokatu du Zubipen eta Jubenil Nazional taldeak gaur jokatu du, 12:00etan, Loinazen Beasainen aurka. Irabazten hastea beharrezkoa da atzeko postuetan baitaude hernaniarrek, egoera arriskutsuan.

Santoña-Hernani, urtea amaitzeko

HERNANI WATERPOLOA

Hernanik Euskal Ligako bigarren mailan lehenengo fasea gaur amaituko du Santoñan, 10:00etan. Hernanik irabaziz gero bigarren amaituko du bere taldean.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

EGURALDIA

GAUR

Goizean hego-mendebaldeko haizea zakartzu joango da eta boladaka bazterrek astinduko ditu. Arratsaldean eta batez ere gauean, are gehiago zakartuko da. **Min.9° / Max.21°**

BIHAR

Denboraleak iparralde harrapatuko du batez ere eta bertan zaparradak botako ditu, batez ere eguerditik aurrera. **Min.8° / Max.15°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Etxebeste Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauz: Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) 943 336022 **Goizueta:** Nagusia 64 948 514353



«Bertso jarriari bere lekua eman nahi diogu, egun bat-batekoak presentzia gehiago duen arren»

Unai eta Eñaut Agirre anai bertsolariak, Imanol Kamioaren musikaz lagunduta, 'Auskalo zeinek jarriak' saioa eskainiko dute ostegunean Biterin. Jexux Mari Irazu bertsolaria gonbidatu berezi bezala ere ariko da saioan laguntzen.

HERNANI BERTSOLARITZA

Eñaut eta Unai Agirre anai eta bertsolari hernaniarrak eta Imanol Kamio musikariak, Bertso Kabiyak urtero Gabonetan antolatzen duen Bertsolatako egitarauan, *Auskalo zeinek jarriak* bertso saioan ariko dira. Hori ostegunean izango da Biterin, 19:00etan hasita.

Gainera, gonbidatu eta laguntzaile berezi eta estimatua izango dute bertan parte hartzen; Jexux Mari Irazu bertsolari aski ezaguna. «Emanaldian, Unai, Imanol eta hirurak aritzen gara eta Jexux Mari Irazu izango da gonbidatu berezia» aipatzen du Eñaut Agirrek. Hasiera batean Joxan Goikoetxea era parte hartzekoa zen, baina musikaria ezingo da egon.

2019an jarri zuten martxan emanaldi hau Agirretarrek eta Kamiok. «Maiatzean egin genuen lehenengo saioa Igartzan, Beasainen. Aurretik modu informalean aritu izan ginen, baina modu formalean ez. Aurretik anaia eta biok emanaldi bat eskaini genuen oso modu

informalean Zaldibin bi urte segidan, baserri batean 30-40 lagunengoa aurrean. Gero hortik sare sozialetara egin zuen emanaldiak salto irudiekin, eta orduan jendea deika hasi zen. Emanaldi batzuk antolatu ginituen, hauek ere modu nahiko informalean, afari edo bazkari bueltan, eta lehenengo deia Beasainetik jaso genuen, aretoan egiteko». Zalanta egin zuten posible ote zen bide horri ekitea, eta erabaki zuten baietz, baina modu landuago batean; eta horretarako, Imanol Kamioaren laguntza izan zuten Agirretarrek. Orditik hirurak dabiltza saioa oholtzatik oholtzara eskaintzen.

A capella, musikatuak eta bertso zaharrak eta berriak

«Imanolek pianoarekin laguntzen gaitu, baina dena ez da musikarekin egiten» azpimarratzen du Eñautek. Zati bat erreserbatua daukagu a capella abesteko».

Bertso jarri historikoak eta egungoak nahasten dituzte. XIX. mendeko Xepelar osaba-iloben bertsoak, hau da, Juan Frantzis-



Unai eta Eñaut Agirre Zaldibian egin zuten lehenengo emanaldi informalean.

ko Petriarena Rekondorenak eta Joxepa Antoni Aranberri Petriarenarenak izango dira tartean, adibidez. «Ideia nagusia da bertso jarriak izango direla. Batzuk zaharrak eta besteak berriak. Guk jarritakoak edo beste batzuek jarriak. Beste zati batean zaharrak abesten ditugu».

Jexux Mari Irazuk bertso sail batzuetan hartuko du parte. «Irazu gure lankidea izan zen Kronikan, harreman oso ona daukagu, bertso mundutik ere bai; beraz, nahiko inguruan ibiltzen da, eta gonbidatzea pentsatu dugu. Ikusiko dugu aurre-

ra begira agian bertsolari hiru-kotea osatuko dugu».

Beraz, Irazuren lehenengo agerraldia izango da hau, *Auskalo zeinek jarriak* emanaldian.

Bertso jarriak beti izan dute lekua bertsolaritzan. «Garai batean ohikoa izaten zen, gaur egun hori ez da erabat hautsi nahiz eta bapatekoak presentzia gehiago eduki. Izkutuago egon da bertso jarria eta bere lekua eman nahi diogu prententsio haundirik gabe, bere balioa eman nahi diogu. Kantaera aldetik ere ahalegina egiten dugu, a capella kantatze horrek bere

balioa ematen dio. Erabat ez dugu uzten, nahiz eta musikarekin lagundutakoak izan tartean».

Dobera laguntzeko izango da, eta sarrerak 7 euroan daude Sarrerak erosteko Doberako bazkideek lehenetsuna izango dute, bihar arte. Hortik aurrera, herritar guztiei irekiko zaie aukera. Sarrerak Dobera Euskara Elkartearen egongo dira salgai, bai bazkideentzat eta baita bazkide ez direnentzat ere, 7 euroan. Bildutako dirua Doberari laguntzeko izango da. **K**



SAGARBERRITU

SAGARDO BOTILEN BERRERABILPENA
BETERRI-BURUNTZAN

1

Sagardo egunetako botilak kaxetan jaso

2

Garbiguneko kaxa metatuak garbiketa enpresara eraman garbitzera

3

Botilak berrerabiltzeko merkaturatu

Eguberrietan erantzukizunez jokatu

Botilak berrerabiltzeko aukera baliatu. Eraman itzazu Garbigunera

ONARTU ERRONKA!

Sustatzaileak



euskadi sagardoa
Sopa natural del País Vasco



GIPUZKOAN SAGARDOGILEN ELKARTIA
ASOCIACIÓN DE BIODIVERSIDAD NATURAL DE GIPUZKOA



sanmarkos
Mankomunitatea



BeterriErrotuz



GIPUZKOA



BETERRI-BURUNTZA UDALAK



AYUNTAMIENTO DE UDUELA



Ayuntamiento de Udala



Ayuntamiento de Udala



Ayuntamiento de Udala